

Urte guzti hauetan hori azaldu izan da administrazioa eta AEKren arteko arazoaren kako moduan. Baina bitartean, konpondu gabe gelditu zen benetako arazoa, irakasleen prestakuntza berezituaren faltak, bere horretan jarraitu du.

AEKtik aldarrikapen hori egin zaio HABEri azken 6/7 urteotan, eta azkenik bide horrek badirudi izan duela hasera: orain 2 urte HABEK, berriro bere kontutik, eta AEKk eskaintako lankidetzari muzin eginez, graduatu ondoko titulu bat jarri zuen martxan unibertsitatearekin (Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultadeko Hizkuntz Pedagogia eta Metodoen saila) batera; hala ere, eta historia behin eta berriro errepikatuz, martxan ipinitako ereduak ez ziren erantzuten gaur sailean lanean ari diren irakasleen beharrei: egunero 5 ordu, prezio oso garestia. Emaizta , ia inork ez zuen izenik eman.

EKBk antolatu zuen helduen euskalduntzeko sailaren lehen ihardunaldietan (1990) lehenetsunezko arazotzat hartua izan zen prestakuntzarena, eta ondoren lan talde batek horri ekin zion: lehendabizi berro ere HABEri eskatu zitzaion elkarrekin aritzea baina honek berriro ere ez zuen erantzun. Ondoren EKBk babestuta beste diplomatura baten sorrera bultzatu da, unibertsitate (Fakultate bereko Hezkuntzaren Teoria eta Historia saila) eta saileko euskalergi eta elkartearen artean, batzorde misto bat osatuz eta irakasleen eta euskalergien beharretara egokituz: klaseak ostirale/ larunbatean, prezioa merketzeko formulak bilatuz. Honek jadanik egin du urte bat eta esperientzia positibotzat joa izan da.

Honen aurrean HABEK, berak bultzatutako eredia berpiztu du baldintzak erreztuz oraingoan: prezioa, klaseak hartzeko moduan... Era berean homologazioari begira baliagarri izan daitekeelakoan aurkeztu zitzaion sailari.

Hala ere, HABEko eta kultur saileko arduradunen ahotik homologazioaren tren galdua aipatzen da berriro ere AEKrekiko oztopoaren iturburu moduan, garbi dagoenean bere egunean erizpide eztabaidagarria zenak gaur oraindik ez duela prestakuntza, eta beraz, irakaskuntzaren kalitatea bermatzen, eta erizpidea burokratiko hutsa dela.

Ordua litzateke beraz, borondaterik balego, errealitateari heldu eta proposamen baliagarriak aurrera ateratzeko, hurrengo hamarkada oinarri sendoetan finkatu nahi badugu behintzat. Beldur gara ordea, horrek suposatzen duen jokabidea aldaketa gertatzetik urruntxo gaudela. Izan ere, nahiz eta oraintsu Euskararen Aholku Batzordeak gizartea eta erakundearen arteko elkar-lana funtsezkotzat jo hurrengo urteei begira, errealitateak erakusten duena da hizkuntz politikarako erizpideek eragin gutxi dutela politika orokorrean, eta arlo honetan nagusitzen diren erizpideak euskararen kalterako eta herri ekimenaren mespretxatxaileak suertatzen direla.

EKBren 10 urteak

BAT aldizkarian ez da izan EKBri buruz hitzegiteko joerarik. Bi arrazoirengatik: EKB tresnatzat hartzen dugulako, eta helburutzat; BAT aldizkaria ez delako koordinakundearen inolako buletina.

Hala ere, 10 urte bete dituen honetan, zilegi da Kronika-Gogoeta-Kritika sail honetan,

egindako bidearen kronika laburra eskaintzea, gogoeta-apurra egitea, eta kritika-puntua jartzea.

1983ko martxoaren 12an aurkeztu zuten EKBren sorrera Bergarako UNEDen euskalgintzako hainbat sailletako erakunde eta elkarte herritarrek, beren arteko koordinazio-zerbitzu gisa; urtebetez landua zuten beraien artean proiektua. Bertan zeuden ikastola, unibertsitate, alfabetatze-euskalduntze, prentsa, administrazio, antzerki, bertsolaritza, Euskal Herrian Euskaraz, euskaltoki eta beste sailletako jendea, beren buruen nahiz erakunde-elkarteen ordezkari.

Joan diren hamar urteotan EKB euskalgintzako mugimendu sozial osoaren eta osoarentzako erreferentzia garrantzizkoa bihurtu dela esan daiteke. Beraren asmoa izan da haseratik erakunde itxia ez izatea, koordinakunde irekia baizik; bertan beren ahaleginak bateratu eta koordinatu nahi izan dituzten guztiei zabalik. Euskal Herri osoko euskalgintzako mugimendu sozialaren koordinazioari begira, bi ardatz eduki ditu EKBk, bere organizazioari eta bere ihardunbideari dagokienez: Kultur sailak (bakoitzaren barruko eta guztien arteko baterakuntza eratzea); herri eta auzoetako talde eta elkarteak (horien suspertzea eta koordinazioa). Bi ardatz horietan saiatu da, haseratik, mugimendu soziala suspertzea eta oinarriko erakundearen koordinazioa bideratzen.

"Euskararen defentsa, berreskurapena eta normalkuntza eta euskal kulturaren eragintza dira EKBren helburua", zioen 1983ko martxoan argitaratu zuen JAKIN aldizkariaren zenbaki monografikoan, "Euskararen plangintzarako Oinarriak" izenpekoan. Helburu horretarako lau aldetara banatu zuen bere ihardunbidea: a) Euskarari buruzko gizartearen jaberazpena, b) euskararen eta euskal kulturaren aldeko ekintza bateratuak, d) erakunde publiko eta sozialen aurreko errebeindikazioak, e) euskararen normalkuntzarako plangintza orokorra bultzatzea eta horretan mugimendu sozialak izan behar duen partaidetza bideratzea.

Koordinazioa eta baterakuntza izan dira EKBren funtsezko filosofia. Horiek gauzatzera joan dira alde askotako ahalegin eta ekimenak: a) antolatu izan dituen mobilizazio eta ekintzaldi orokorrak (Euskararen Egunak, Bateginik, euskararen aldeko manifestaldi puntualak, etab.) eta bultzatu dituen sail ezberdinetako ekintzak (ikastolenak, AEKrenak, Kultur Kezka, Egunkariaren sorrera, etab.); b) programatu eta bultzatu izan dituen prentsa eta komunikabideetako euskararen aldeko kanpainak eta horren erasoan aurkako erantzun kolektiboak; d) antolatu dituen ihardunaldiak eta kongresuak (sail jakinekoak nahiz sailen artekoak); e) eratuak dituen zerbitzu iraunkorrak (zerbitzu juridikoa, aholkularitza teknikoak, prentsako dokumentazioarena, BAT soziolinguistika aldizkaria, Dokuberriak, Euskararen nazioarteko albistaria); f) argitaratzen diharduen bestelako liburu eta materialak, batez ere soziolinguistikaren ingurukoak; g) egin dituen hiru nazio-batzarre irekiak; h) hainbat erakunde publiko nahiz pribaturekin ireki duen lankidetzak praktikoa, puntuala nahiz iraunkorra (Jaurilaritzako HPINekin eta Nafarroako HPZrekin, EHUrekin, etab.), euskalgintzako programa konkretuak aurrera eramateko.

Guzti horien lau aldetako zerbitzua bete izan nahi du EKBk, euskalgintzako talde, elkarte eta erakundeentzako: Informazio-zerbitzua, formazio-zerbitzua, aholkularitza-zerbitzua eta harreman-zerbitzua.

Azken bi horietaz gogoeta bat edo beste egitea merezi du. Nazio-batzarreak ditu EKBk

bere antolamenduaren eta ihardunbidearen adierazpen nagusietakoak; orain arte hiru egin ditu horrelakoak, lau urtetik behin, 1984koa Eibarren egin zuen aurrena: haren ondorioz landu zen aipaturiko "Euskararen plangintzarako Oinarriak" dossier zabala. Bigarrena 1988an egin zuen Donostian: bertan EKBren beraren ihardunbidearen ildoak eta ardatzak eztabaidatu, sakondu eta zehaztu zituen, euskararen dinamika eta plangintza osoaren barruan; dokumentu mardul batean agertu zituen ondorioak. Hirugarrena, berriz, 1992an egin zuen Donostian, non ordurarte egindako bidearen gain, izandako lorpenak eta hutsuneak aztertu eta kritikatu ondoren, EKBren beraren berregituraketa erabaki baitzen, koordinaziorako organoa egokitu eta zabaldu nahian.

Hiru batzarre nazionalak guztiz garrantzizkoak izan dira, aurretik, bertan nahiz ondoren eztabaida zabalerako leku eta eragile gertatu direlako, eta beraietan definitu zirelako EKBren aurrebiderako ildoak, euskararen aldeko mugimendu sozialaren indartzeari eta koordinatzeari begira. Agian pentsatzekoa da, horiek maizago egin beharko lirakekeela, bi urtez edo hiru urtez behin.

EKBren betidaniko kezka nagusia izan da erakunde publikoen eta erakunde herritarren arteko harremana eta elkarlana bideratzea, euskararen normalkuntzarako plangintza orokorraren barruan. Irakurri besterik ez dago berak atera dituen agiri eta idazlanak. Ez da batzutan erraza izan hori; eta behin baino gehiagotan inkomunikazioa, edota inoiz konfrontazioa nagusitu izan dira. Alde horretatik eskarmentu aski bihurriak izan ziren, zoritxarrez, Euskararen eguna (hiru aldiz antolatua) eta Bateginik kanpainak. Zorionez, ordea, bestelako esperientzia positiboak ere ugariak izan dira, maila ezberdinetakoa erakunde publikoekiko eta hainbat erakunde sozial eta kulturalerekiko harreman eta elkarlanean.

EKBren esanetan, erakunde herritarren eta erakunde publikoen arteko harremanak, euskalgintzaren alorrekoak, dialektikoak izan behar dute, haien arteko dikotomia gaindituko dutenak, batetik, eta haien kontzeptu organizista aldenduko dutenak, bestetik. 3. Batzar nazionalaren ondoren batez ere ahalegin berezia egin du EKBk elkarrizketa-elkarlanetarako egon izan diren zailtasunak gainditzeko. Horien fruitua izan zen, adibidez, hainbat bilera eta eztabaidaren ondoren, 1993aren hasieran HPINen eta EKBren artean onarturiko agiria, elkarlanerako markoa izan nahi duena. Horrelako dokumentua ez da noski elkarlanean aurkituko diren zailtasun eta gorabehera guztiak besterik gabe konpontzeko inolako panazea; elkarlanean bidea eginez ikasi ahal izango dute erakunde publikoek eta erakunde herritarrek harreman-elkarlanetarako ereduak eta moduak aurkitzen eta definitzen.

Orain dela 10 urte EKBk ipinitako azken helburua ez da bete noski, euskararen normalkuntza oraindik urruti dagoelako; eta, beraz, EKBrentzat ere bide luzea gelditzen da aurrera begira. Lorpen handienetakoa -abstraktu xamarra badirudi ere- zera izan da: hizkuntza gutxituen eta bereziki euskararen normalkuntzaren bidean mugimendu sozialak izan behar duen protagonismoa, eta hori osotzen duten elkarte eta erakunde arteko koordinazioaren premiaz, gaur egun denok edo ia denok jabetuta egotea.

Besterik da, ordea, protagonismo hori zenbateraino bideratzea eta gauzatzea lortu den, herritarren aldetik eta erakunde publikoen jokabidearen aldetik; horretan EKBk ez du lortu bere hasierako eta bitarteko helburua. Gainere euskalgintzako indar, talde, elkarte eta erakunde herritarren koordinazio zabalerako sortu eta eratu zen EKBk maila

bateraino bakarrik lortu du helburu hori; maila aski apalean, gainera. Horren errua ez dago noski kanpotikako erasoetan eta arduragabezian bakarrik ipintzerik (indar politikoetan edo sozialetan); EKBk bere okerrak eta hutsak egin dituela esan behar da, euskalgintzako hainbat indar herritarren koordinazio nazional, guztiz zabala eta handia eratzeke gauza izan ez bada. Hortxe dago desafioa, barruko eta kanpoko eragozpenak gaindituz aurre egin eta irabazi beharrekoa.

Okerrak eta hutsuneak aztertzea eta zuzentzea izan zuen helburuetako bat 3. Batzarre nazionalak. Horren ondorioz proposatu zen, besteren artean, EKBrentzako Konfederazioaren egitura ere, geroztik eta hainbat elkarrizketa eta harremanen ondoren bideratu dena, eta zabaltzen ari dena.

Dena dela, azterketak eta autokritikak eta proposamen berriek etengabe funtzionatu behar dute mugimendu sozialaren erakuntzan; 1992ko Batzarre nazionalean bideraturikoek irekita jarraitzen dute. Era berean organizazio-formulak ere behin eta berriro egokitu beharrekoak dira.

Euskararen Aholku Batzodearen testamentua: Elebitasuna

Aurtengo ekainaren 4ean Euskararen Aholku Batzordeak, bere Osoko Bilkuran dokumentu bat onartu zuen, "Euskararen politikarako oinarritzko erizpideak" izenekoak. 1982an aldarrikaturiko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarritzko Legeak 10 urteak bete berriak ditu. Era berean, Batzordeak berak duela 10 urte argitara emandako Euskararen politikarako oinarriak gogoratuz dator oraingo agiri hau. Iragandako hamar urteetan euskararen normalkuntzaren bidean egindako urratsak aztertzeaz gain, aurrea begirako irizpideak eskaintzera dator dokumentua.

Une batean bere oihartzuna izan zuen arren, eztabaidarik ez du sortu gizartean. Erakundeetatik etorri da, ordea, nolabaiteko kontraproposamena. Gasteizko Kulturako Kontseilaria ez da agiriarekin ados nonbait, nahiz eta bera ere Aholku-Batzordekoa izan; azken aldian prentsan eta hitzaldi sonatu batean jaulkitako iritzia orain arteko hizkuntz politikaren oinarri azpia jatera etorri direla dirudi. Bien artean, berriro hizkuntz politikaren ardatzei buruzko gogoeta eta eztabaida gizarteratzeko eta bizkortzeko une guztiz garrantzizkoa da oraingoa.

Bere azken bilkuran onartu zuen agiria Aholku-Batzordeak. Laster agertu zen horren "suntsipen-dekretua", bertako partaide guztiak 'desizendatzen' zituena. Esan daiteke, beraz, Batzordearen testamentua izan dela dokumentua; gainera, dirudienez, ez da batere erraza izan horren sorrera. Agiria eta Batzordearen suntsipena, biak batera irakurri behar dira; nahiz eta agirian Batzordearen lanari eta etorkizunari buruz aipamenik ez egin.

Agiria ugaria eta zabala da ohar analitikotan eta iradokizunetan. Berorren luzean eta sakonean aztertzeke ez da iruzkin labur hau. Bertan nabarmentzen diren puntuen artean hemen ere nabarmentzekoak izan daitezke, hala ere, sakonkiago aztertu eta eztabaidatzea ere merezi dutelako: maila ezberdinetako erakunde publikoen hizkuntz